

BESTELAKO XEDAPENAK

ZIENTZIA, UNIBERTSITATE ETA BERRIKUNTZA SAILA

4681

AGINDUA, 2024ko urriaren 1ekoa, Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuarena, zeinaren bidez deialdia egiten baita ikertzaileak prestatzeko doktoratu aurreko programa aplikatzen den zentroez bestelakoetan egonaldiak egiteko laguntzetarako.

Doktoregoko ikasleen prestakuntza integrala bultzatzeko, haien ikaskuntza teorikoa eta praktikoa osatuz, bai eta gaitasun teknikoak, metodologikoak, pertsonalak eta parte-hartzaileak eta berrikuntzaren, sormenaren eta ekintzailtzaren balioak garatzen laguntzeko ere, Hezkuntzako sailburuaren 2024ko maiatzaren 14ko Aginduak (zeinaren bidez ezartzen baitira doktore ez diren ikertzaileak prestatzeko doktoratu aurreko programako laguntza berrien eta laguntza-berritzeen deialdirako oinarriak, 2024-2025 ikasturterako) ezarri zuen laguntza berri baten onuradunek nahitaez egin behar dutela egonaldi bat nazioartean. Egonaldi horrek doktoregoaren nazioarteko aipamena lortzea erraztuko du, baita egindako ikerketa nazioartekotzea ere. Agindu horrek, 8.5 artikuluan, atzerrian ikerketa-egonaldi bat egiteko laguntza ekonomikoa jasotzeko eskubidea dagoela ezartzen du.

Eskabidea egiteko, inskripzio-inprimakia bete beharko da, sailaren egoitza elektronikoan telematikoki eskuragai egongo dena, betiere urtarrilaren 11ko 4/2022 Dekretua aplikatuz, zeinaren bidez bitarteko elektronikoak erabiltzeko betebeharra arautzen baita ikerketa arloko laguntzetarako eta sarietarako eskabideetan eta gainerako izapideetan.

Kontuan hartu da lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen (2024ko ekainaren 24ko EHAA, 123. zk.).

Deialdi hau ebazteko, kontuan izango dira administrazio publikoen dirulaguntzak emateko jarduera arautzen duten printzipioak –publikotasuna, lehia, objektibotasuna, ezarritako helburuak betetzeko efikazia eta baliabide publikoak esleitzeko eta erabiltzeko efizientzia–, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 7. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta bat etorri Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren (Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez garatua) oinarritzko manuekin eta laguntza eta dirulaguntzei aplikatu beharreko gainerako xedapenekin, eta eskura dauden baliabide ekonomikoak aplikatuko dira agindu honetan ezarritako irizpideen arabera. Halaber, adierazi behar da Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailaren 2025erako Dirulaguntzen Plan Estrategikoak deialdi hau jasoko duela 1. helburu estrategikoa betetzeko dirulaguntza-lerroen barruan.

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

1.– Laguntzetarako deialdia egitea programa aplikatzen den zentroez bestelakoetan doktoratu aurreko egonaldiak egin ditzaten prestakuntzan ari diren ikertzaileek. Hauxe izango da egonaldien helburua: doktoregoko ikasleen prestakuntza integrala bultzatzea, haien ikaskuntza teorikoa eta praktikoa osatuz; gaitasun teknikoak, metodologikoak, pertsonalak eta parte-hartzaileak eta berrikuntzaren, sormenaren eta ekintzailtzaren balioak garatzen laguntzea, eta nazioarteko doktoregoa lortzea erraztea.

2.– Doktore ez diren ikertzaileentzako mugikortasun-programak bi modalitate ditu:

a) A modalitatea: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak 2023-2024 ikasturteari dagokionez ematen duen Doktore ez diren ikertzaileak prestatzeko doktoratu aurreko programako laguntza baten onuradun diren ikertzaileen mugikortasuna, baldin eta laguntzaren lehen hiru urteetan badaude ikertzaileok.

b) B modalitatea: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak 2024-2025 ikasturteari dagokionez ematen duen Doktore ez diren ikertzaileak prestatzeko doktoratu aurreko programako laguntza berri baten onuradun diren ikertzaileen mugikortasuna.

3.– Egonaldiak egin ahal izango dira atzerriko unibertsitateetan, ikerketa-zentroetan edo garapen teknologikoko zentroetan eta I+G+b-ko jarduera duten enpresetan, baldin eta doktoratu aurreko programa aplikatzeko zentroaz bestelako hiri batean egiten badira eta aldi baterako egoitza aldatzeak justifikatu egiten badu agindu honetan zehazten diren laguntza ekonomikoak ematea.

4.– Deialdi honetatik kanpo gelditzen dira biltzarretara, bilera zientifikoetara eta, Ikerketa Zuzendaritzaren iritziz, 1. apartatuan ezarritako helburura egokitzen ez diren bestelako egonaldietara joatea, bai eta egonaldiak egitea ere EAEn kokatuta dauden zentroetan, bizi diren probintzian, ezarpen-zentroa atzerrian duten eta prestatzen ari diren ikertzaileentzat.

2. artikulua.– Laguntzen finantzaketa.

Agindu honetan arautu laguntzak finantzatzeko, 465.000 euro bideratuko dira, era honetan banatuta, 1. artikuluan aipatu bi modalitateen arabera:

A modalitatea: 418.000 euro.

B modalitatea: 47.000 euro.

Modalitateetako batean ez bada agortzen aurrekontu erabilgarria, soberakina beste modalitateko eskabideak finantzatzeko erabili ahal izango da, lehentasun-ordenari jarraikiz, ez badute dirulaguntzarik jaso modalitate hori finantzatzeko hasiera batean bideratutako diru-hornidura nahikorik ez zegoelako.

3. artikulua.– Laguntzen onuradunak.

1.– Honako hauek izango dute laguntzak eskatzea: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ematen duen Doktore ez diren ikertzaileak prestatzeko doktoratu aurreko programako laguntza baten onuradun direnek.

2.– Aurretik deialdiaren xede den laguntzaren onuradun izan eta hura baliatu duten ikertzaileek, berriz, ezingo dute laguntza hau eskuratu.

3.– Ezingo dira agindu honetan araututako dirulaguntzen onuradun izan egoera hauetako batean daudenak:

a) Dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzeko aukerarik gabe utzita epai irmo baten bidez zigortutakoak edo prebarikazioagatik, funtzionario-eroskeriagatik, ondasun publikoak bidegabe eralgitzeagatik, influentzia-trafikoagatik, iruzur egiteagatik eta legearen aurkako ordainarazpenengatik edo hirigintza-delituengatik epai irmo baten bidez zigortutakoak.

b) Borondatezko konkurtsoaren deklarazioa eskatu dutenak, edozein prozeduratan kaudimengabetzat jo direnak, konkurtsoan deklaraturik daudenak (salbu eta horretan eraginkortasuna hartu badu hitzarmen batek), esku-hartze judizialaren pean edo Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legea betez desgaituta daudenak, oraindik ez bada igaro konkurtsoaren kalifikazio-epaian ezarritako desgaitze-aldia.

c) Administrazioarekin egindako edozein kontratu ebazpen irmoz indargabetu bada, dena delako kausagatik errudun deklaratuak izan direnak.

d) Honako lege haueetan aipatutako kasuren batean daudenak: 3/2015 Legea, martxoaren 30ekoa, Estatuko Administrazio Orokorreko goi-kargudunen jarduna arautzen duena, eta 53/1984 Legea, abenduaren 26koa, Administrazio publikoen zerbitzura dauden langileen bateraezintasunena; edo Hauteskunde Erregimen Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapenezko karguak direnak, lege horretan edo gai horiek arautzen dituen Euskal Autonomia Erkidegoko arauak ezarritako baldintzetan.

e) Indarrean dauden xedapenek ezartzen dituzten zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen ez dituztenak, erregelamenduz zehazten den moduan.

Administrazioak ofizioz egiaztatuko du egunean dituztela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu, arrazoiak emanda, helbide honetan:

<https://www.euskadi.eus/datu-babesaren-gaineko-eskubideak-egikaritu/web01-tramite/eu/>

Aurka eginez gero, ziurtagiri eguneratuak aurkeztu beharko ditu onuradunak.

f) Egoitza fiskala paradisu fiskaltzat hartutako herrialde edo lurralde batean dutenak.

g) Dirulaguntzak organo emaileari berreskuratu behar izateagatik sortutako obligazioen ordainketa egunean ez dutenak, erregelamenduz zehazten diren terminoetan.

h) Ebazpen irmo baten bidez zehatuta dirulaguntzak lortzeko aukera galdu dutenak, lege honetan edo beste batzuetan zehaztutakoari jarraituz.

i) Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko Legearen 13. artikuluan adierazitako debekuren bat dutenak. Erantzukizunpeko adierazpenean (II. eranskina) daude zehaztuta debeku horiek.

4. artikulua.– Laguntzen baldintzak.

1.– Laguntza hauen xede diren egonaldiak 2025ean hasi beharko dira, eta bat etorri beharko dute zentro hartzailearen aldi akademikoarekin edo ohiko jarduerarekin.

2.– Zentro bakar batean eta modu jarraituan 4 eta 6 hilabete arteko egonaldi bakar bat egiteko emango da laguntza.

Ikerketa-egonaldia aldi baterako etetea baimendu ahal izango da, baldin eta ikerketa-proiektua garatzen jarraitzea eragozten duten arrazoi justifikatuak badaude edo behar bezala justifikatutako osasun-arrazoiengatik edo inguruabar sanitarioengatik.

Egonaldia eten nahi izanez gero, Ikerketa Zuzendaritzari aurkeztu beharko dio eteteko eskabidea onuradunak, eta zentro hartzaileko ikertzaile arduradunaren adostasuna izan beharko du, bai eta tesiaren zuzendariaren eta eskatzailea atxikita dagoen saileko zuzendariaren adostasuna ere. Etenaldia egiteko arrazoia zehaztu beharko da, eta egonaldia osatzeko data berriak adierazi.

3.– Ikertzaileko, egonaldi-proiektu bakarrerako izango da laguntza.

5. artikulua.– Eskabideak formalizatzea eta aurkezteko epeak.

1.– Eskabidea egiteko, nahitaezkoa da inskripzio-orria erabiltzea; inskripzio-orri hori telematikoki egongo da eskuragarri, Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoaren bitartez, helbide elektroniko honetan: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0173609/web01-tramite/eu/>

Helbide horretatik, ikerketako informatika-aplikazioan sartuko da izangaia, eta bertan alta hartu beharko du erabiltzaile moduan, eta aplikazioan zehaztutako jarraibideak bete. Eskatzailearen nortasuna egiaztatuko da, pertsona horren esanbidezko baimenarekin, ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuan jasota dagoen datuak egiaztatzeko zerbitzuaren bidez (91/2023 Dekretua, Herritarrei arreta integrala eta multikanala ematekoa eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izatekoa).

Eskabidearekin batera, agindu honen 5. artikuluan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dira, eta elektronikoki baino ezin izango dira aurkeztu, urtarrilaren 11ko 4/2022 Dekretuaren arabera, zeinaren bidez bitarteko elektronikokoak erabiltzeko betebeharra arautzen baita ikerketa arloko laguntzetarako eta sarietarako eskabideetan eta gainerako izapideetan. Agiri horiek Elkarreragingarritasun-eskema nazionala onartzen duen 4/2010 Errege Dekretuan eta hura garatzen duen araudian arautzen diren formatuetara egokituko dira.

2.– Eskabide telematikoa osorik betetakoan, eta artikulua honen 5. apartatuan adierazitako agiriak aplikazioaren bidez atxikitakoan, eskatzaileak eskabidea erregistratzeko prozesu elektronikoa osatu beharko du; izan ere, sinadura elektronikoen bidez eskabide bati balioa emateko, jasota geratu behar da erregistratu dela. Hori ziurtatzeko, eskatzaileak agirien erregistro elektronikoa/ aurkezpen-erregistroa eskuratu dezake, «Ikusi egiaztageria E/E» aukeratua.

Eskabidea identifikatzeko zenbaki bat izango du inprimaki ofizialak.

3.– Eskabideak aurkezteko epeak.

Hauek dira eskabideak aurkezteko epeak:

1.– A modalitatea: hilabete, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2.– B modalitatea: 2025eko urtarrilaren 15etik otsailaren 14ra, biak barne.

4.– Eskatutako dokumentazioa.

Zerrenda honetako agiriak aurkeztu beharko dira, aplikazioaren bitartez:

a) Egonaldiaren xedea deskribatzeko memoria (bi orrialde, gehienez ere). EAEko hizkuntza ofizialetako batean aurkeztu beharko dira memoriak. Era berean, memoriak normalizatu gabeko formatuetan aurkeztuz gero edo artikulua honetan zehaztutakoak baino orrialde gehiago izanez gero, eskabidean zuzendu beharreko hutsunetzat joko dira.

b) Zentro hartzailearen gutun ofiziala, non egiaztatzen baita bisitaldia eskatutako egunetan egitea onartzen dela.

c) Egitekoa den egonaldiarekiko adostasuna adierazten duen agiria, tesiaren zuzendariak edo eskatzailea atxikita dagoen saileko zuzendariak izenpetua. Aplikazioan, eskuragarri dago agiri horren txantilo bat.

d) Eskabidean azaltzen den erantzukizunpeko adierazpenean jasotakoak egiaztatzen dituen dokumentazioa, halakorik behar izanez gero.

6. artikulua.– Eskabideetako akatsak zuzentzea.

Dirulaguntza-eskabideak guztiz betetzen ez badira, edo nahitaezko agiriak aurkezten ez badira, Ikerketa Zuzendaritzak eskatzaileei eskatuko die 10 eguneko epean hutsak bete ditzatela edo nahitaezko agiriak aurkez ditzatela. Halaber, ohartaraziko die ulertuko dela, hala egin ezean, haien eskabidean atzera egin dutela, bat etorri Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1 eta 21.1 artikuluetan xedatutakoarekin.

Zuzentzeko errekerimendua jakinarazteko, 12. artikulua 2. apartatua ezarritako prozedurari jarraituko zaio.

7. artikulua.– Laguntza kudeatzeko organoa.

Ikerketa Zuzendaritzari dagokio deialdi honetan aurreikusitako laguntzak kudeatzea.

8. artikulua.– Dirulaguntzen zenbatekoa eta aseguruua.

1.– Mantenu-gastuetarako laguntzaren zenbatekoa 25 eurokoa izango da eguneko.

2.– Bidaia-gastuetarako laguntzaren zenbatekoa finkatzeko, taula honi jarraituko zaio:

Abiapuntutik helmugarainoko distantzia	Bidaia-gastuetarako gehienezko laguntza
1.000 km-ra arte	300 euro
1.001-2.500 km	600 euro
2.501-11.000 km	1.000 euro
11.000 km-tik gora	1.200 euro

Kilometroak kalkulatzeko, erreferentziatza hartuko da <http://es.distance.to> estekaren bidez egindako kontsultaren emaitza. Agindu honen ondorioetarako, eskatzaileak ezarpen-zentroa duen probintziako hiriburua hartuko da jatorriko hiritzat.

Joan-etorriak garraio bide publiko kolektiboetan egingo dira, baina ibilgailu partikularra erabiltzeko baimena emango da helmugara garraio bide publikoetan iristea ezinezkoa dela frogatzen bada. Aurrekoa gorabehera, norberaren ibilgailua erabiltzeko baimena eman ahal izango da, kasuan kasuko inguruabarrak kontuan hartuta. Egonaldia hasi baino lehen eskatu beharko zaio baimena Ikerketa Zuzendaritzari, aplikazioaren bidez. Baimen hori eskatu ezean, norberaren ibilgailuan garraiatzeak eragindako gastuak ez dira onartuko laguntza justifikatzeko unean.

Bidaian norberaren ibilgailua erabiliz gero, kilometroko 0,29 euro ordainduko dira justifikatutako kilometroak.

Bidaia-gastuetarako ematen den laguntzaren zenbatekoak ez ditu barnean hartuko egonaldian egiten diren tokiko garraioaren gastuak.

Egonaldia egiteko bisa izapidetu behar izanez gero, 200 euroko diru-osagarri bat emango da.

3.– Laguntzak eman eta gero, eta behar bezala justifikatutako kasuetan, 4.2 artikuluan adierazi den bezala, Ikerketa Zuzendaritzak aldaketak onartu ahal izango ditu egonaldien ezaugarrietan; dena den, horrek ez du eragingo onartutako gastua handitzea.

4.– Aseguruua: Ikerketa Zuzendaritzak baimenduta atzerrian egiten diren egonaldietarako, laguntzen onuradunek, dagokien Gizarte Segurantzaren estaldura izateaz gainera, erantzukizun zibileko, istripuetarako eta bidaia-laguntzako aseguru bat izango dute. Interesdunaren ezkontidea eta 25 urtetik beherako seme-alabak atzerrira badoaz onuradunarekin, haien zatire ere zabalduta ahal izango da bidaia-laguntzako aseguruua, interesdunak hala eskatzen badu. Aseguru hori baliagarria izango da, era berean, antolamendu juridikoak onartzen dituen edozein frogagiriren bitartez egiaztatutako izatezko bikoteentzat.

9. artikulua.– Laguntzen bateraezintasuna.

Laguntza hauek bateraezinak dira helburu bera duen beste edozein laguntzarekin, salbu Doktore ez diren ikertzaileak prestatzeko doktoratu aurreko programako laguntza bera, baliatzen ari dena.

10. artikulua.– Esleitzeko irizpideak.

1.– Hautaketa Batzorde batek baloratuko ditu eskabideak. Hauek izango dira batzordekideak: Ikerketako zuzendaria, Amaia Esquisabel Alegría (batzordeburua); Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendaria, Miren Artaraz Miñón; eta Ikerketa Zuzendaritzako teknikari bat, Patrizia Larrea Martínez (idazkaria). Hautaketa Batzordeak txosten bat egingo du, ebaluazioaren emaitza jasoko duena. Ondoren, organo kudeatzaileak egingo du ebazpen-proposamena; organo horrek, gainera, beste txosten bat sartuko du espedientean, zeinean adieraziko baitu onuradunek bete egiten dituztela eskatutako betekizunak, bere esku dagoen informazioaren arabera.

Proposamenetan datu hauek zehaztuko dira: onuradunen zerrenda eta dagozkien diru-zuzkidura zehatua, kreditu erabilgarriaren mugaraino, eta ordezkoen zerrenda bat.

2.– Eskabideak irizpide eta puntuazio hauen arabera barematuko dira:

a) A modalitatea:

– Eskabidea egiten den unean Eusko Jaurlaritzako Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailak emandako doktoratu aurreko laguntzaren lehen urteko onuradun direnak: 1 puntu.

– Eskabidea egiten den unean Eusko Jaurlaritzako Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailak emandako doktoratu aurreko laguntzaren bigarren urteko onuradun direnak: 2 puntu.

– Eskabidea egiten den unean Eusko Jaurlaritzako Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailak emandako doktoratu aurreko laguntzaren hirugarren urteko onuradun direnak: 3 puntu.

b) B modalitatea: eskabidea egiten den unean Eusko Jaurlaritzako Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailak emandako doktoratu aurreko laguntzaren lehen urteko onuradunak, doktoratu aurreko laguntzaren «Ikerketa-proiektuaren memoria zientifiko-teknikoa» atalean lortutako puntuazioaren arabera. Memoria horrek honako eduki hauek izan beharko ditu, baloratzeko: proiektuaren izenburua, laburpena, aurrekariak, helburuak, metodologia eta lan-plana, interes zientifiko edo soziala eta bibliografia nabarmenena.

3.– Dirulaguntzak emateko prozeduretan, beharrezko neurriak hartuko dira eskaeren balorazioan edo prozedura horien ebazpenean parte hartzen duten pertsona guztien interes-gatazkak saihesteko.

11. artikulua.– Laguntzak esleitzeko prozedura.

Agindu honetako laguntzak lehiaketa-prozeduraren bidez ebatziko dira. Lehiaketa independente bat egingo da modalitate bakoitzerako. Horretarako, aurkeztu eta onartutako eskabideak erkatuko dira, haien artean lehentasun-hurrenkera ezartzeko, 10. artikuluan finkatutako irizpideei jarraituz. Puntu gehien lortzen dituzten eskabideei baino ez zaizkie esleitu laguntzak, harik eta agindu honen 2. artikuluan izendatutako aurrekontu-kreditua agortu arte.

Puntuazio-berdinketak ebazteko, oinarritzat hartuko da eskabideak betetzeko aplikazioak ematen duen ausazko zenbakia, txikienetik handienera. Zenbaki hori aplikazio telematikoan sortzen den eskabide-inprimakian agertuko da.

Esleipen horien ondoren bi modalitateetako batean soberako aurrekontu-krediturik badago eta bestean laguntzaren bat eman ez bada kreditua agortu delako, laguntza horiek esleitu dira geratzen den aurrekontu-kreditua agortu arte, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearen ebazpen baten bidez.

12. artikulua.– Ebazpena.

1.– Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordeak ebazpenak emango ditu agindu honetako laguntzak esleitzeko eta haien zenbatekoak zehazteko –ebazpen bat modalitate bakoitzeko–, deialdia EHAAAn argitaratu eta hurrengo sei hilabeteetan.

2.– Egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuz jakinaraziko da aipatutako ebazpena: <https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa> Era berean, jakinarazpen elektronikoa bat helaraziko da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalera (<https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/>). Ziurtagiri elektronikoa erabili behar da sartzeko.

Abisu bat bidaliko da interesdunak eman duen helbide elektronikora, jakinarazpena egoitza elektronikoa eskuragarri duela adierazteko.

Hargatik eragotzi gabe aurreko 2. apartatuan ezarritakoa, Ikerketa Zuzendaritzak argitalpen berri helarazi ahal izango die interesdunei, SMS edo posta elektronikoa bidez. Abisu horiek ez dute inolaz ere jakinarazpenerako baliorik izango.

3.– Emate-ebazpena argitaratu eta hurrengo 10 egun naturaletan gertatzen diren uko-egiteen kasuan, ordezkoen zerrendan ageri diren eskatzaileei emango zaizkie laguntzak, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearen ebazpen baten bidez.

Emandako azken laguntzaren ondorengo lekuan dauden pertsoneri emango zaizkie laguntza horiek. Bi modalitateetako batean ordezkorik ez badago, ordezkoen zerrenda baduen modalitate horretako zerrendan lehenengo lekuan dagoen eskatzaileari eman ahal izango zaio laguntza.

4.– Modalitateetako baten ebazpena eman eta 3. puntuan ezarritakoa aplikatu ondoren soberako aurrekontu-krediturik badago, ordezkoen zerrendan dauden eta modalitate horretan aurrekontu-kreditua agortu delako onuradun izan ez diren eskatzaileei laguntza esleitzeko erabili ahal izango da soberakin hori.

3. eta 4. puntuetan ezarritakoaren ondorioetarako, laguntzak emango dituen organoak laguntza emateko proposamena jakinaraziko die interesdunei, 10 egun naturaleko epe luzaezinean onar dezaten. Proposamena onartutakoan, beka emateko ebazpena emango da, eta interesdunei jakinaraziko zaie.

5.– Baldin eta artikulua honen 1. apartatuan ezarritako epean berariazko ebazpenik ematen eta jakinarazten ez bada, interesdunek ezetsizat jo ahal izango dituzte beren eskabideak.

6.– Ebazpen horren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango diote Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

7.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoek emandako ezaugarri bereko beste laguntza edo dirulaguntza batzuen barruan dirulaguntzak itzultzeko edo zehatzeko prozeduraren bat oraindik ere izapidetzen ari bada, prozedura hori bukatu egin beharko da dirulaguntza eman eta ordaindu ahal izateko.

8.– Emandako laguntzen zerrendak publikotasuna izan dezan, EHAAAn argitaratuko da, jakinarazpen hori egin eta 6 hilabeteko epean.

13. artikulua.– Onuradunen betebeharrak.

Agindu honetako laguntzen onuradunek Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14., 27. eta 42. artikuluetan araututako betebeharren araubidea bete beharko dute. Zehazki, eginbehar hauek bete beharko dituzte:

a) Emandako dirulaguntza onartzea. Laguntzaren onuradunak 10 egun naturaleko epea izango du laguntzari berariaz uko egiteko, dirulaguntza emango zaiola jakinarazteko ebazpena www.euskadi.eus egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratzen denetik aurrera. Horrelakorik egin ezean, laguntza onartutzat hartuko da.

b) Zentroan aritzea diruz laguntzen den denboraldi osoan. Laguntza jasotzen duen ikertzaileak etenik gabe egin beharko du bere jarduera, eta zentroko lan-egutegiak bete beharko ditu. Proiektuko zioen ondoriozko absentsia orok edo zentroaren ikerketa-beharrengatik egindakoaldi baterako irteera orok zentro hartzailearen arduradunaren adostasuna beharko du, eta Ikerketa Zuzendaritzari jakinaraziko zaio zergatik eta zein egunetan gertatu den.

c) Diruz lagundu den egoeraren xedea edo izaera errotik aldarazten duen gorabeheraren bat sortzen bada, horren berri ematea, eta Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailari laguntzea jarduera horien egiaztapen-, ikuskaritza-, jarraipen- eta kontrol-prozeduretan.

d) Dirulaguntza zertarako eman den, horretarako erabiltzea.

e) Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari euren eginkizunetan dihardutela eskatzen duten informazioa ematea deialdi honen kontura jasotako dirulaguntzei buruz.

f) Helburu bererako lortu den beste laguntza oro deklaratzeari.

g) Egonaldia amaitu ondorengo hamabost eguneko epean, jarduera justifikatzeko agiriak bidaltzea Ikerketa Zuzendaritzara, 15. artikuluan zehazten den moduan.

14. artikulua.– Laguntzari uko egitea.

1.– Ikerketako zuzendariari jakinaraziko zaizkio uko-egiteak, onuradunak eta tesiaren zuzendariak sinatutako idazki baten bidez. Bertan adieraziko da zein diren uko egiteko arrazoiak eta uko-egite horrek zein egunetatik aurrera izango dituen ondorioak. Uko-egite hori aplikazio telematikoaren bidez jakinarazi beharko da, ondorioak izan baino 10 egun natural lehenago.

2.– Uko-egiteak Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearen ebazpen baten bidez onartuko dira.

Uko-egitearen ondorio ekonomikoak uko-egite hori gauzatzen den egunean berean hasiko dira. Hala ere, bidegabeko ordainketak egin badira, diru-zenbateko horiek itzuli beharko dira.

15. artikulua.– Dirulaguntzak ordaintzea eta justifikatzea.

1.– Laguntza hauek ordainketa bakar batean emango dira, ebazpena eman eta gero betiere, eta onuradunak onartzeko epea betetakoan. Horretarako, onuradunak eguneratua izan beharko du hirugarrenen altaren agiria, esteka honetan:

<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/-/hirugarrenaren-datuen-aldaketa/>

2.– Egonaldia amaitu ondorengo hamabost eguneko epean, onuradunek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte aplikazio informatikoaren bidez:

a) Burutu den egonaldiari buruzko ziurtagiria: zentro hartzaileko ikertzaile arduradunak izenpetutako jatorrizko idazki bat izango da. Egonaldiaren hasiera- eta amaiera-egunak adierazi beharko dira han.

b) Egindako lanaren txosten zientifiko-teknikoa, laguntzaren baldintzak betetzen direla justifikatzeko, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak zehaztuta.

c) Emandako laguntzaz egindako gastuaren ziurtagiria. Ostatu-gastuen fakturak ere aurkeztuko dira, haiek ordaintzeko egindako ordainketen egiaztagiriekin batera, bai eta bidaia-gastuen eta bisa izapidetzearen fakturak ere, hauek erantsi beharko zaizkiela:

– Ostatu-kontratua.

– Garraio publikoan egindako bidaien txartelak eta fakturak.

– Bisa izapidetzean egindako tasa-gastuen eta garraio publikoan egindako joan-etorrien txartelak eta fakturak.

3.– Egonaldia esleitutakoa baino laburragoa bada, mantenurako emandako laguntzaren zati proportzionala itzuli beharko du onuradunak, hau da, egin gabeko aldiari dagokion zatia, indarrean den legeriarekin bat etorritz.

4.– Bidaia-gastuetarako emandako laguntza bidaiaren benetako kostua baino handiagoa bada, onuradunak itzuli egin beharko du benetako kostuz gainekoa.

16. artikulua.– Ez-betetzea.

Laguntzaren onuradunak Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36. artikuluan zehaztutako kasuetako batean badaude, edo betetzen ez badituzte agindu honetan eta aplikatzekoak diren gainerako arauetan aipatutako baldintzak edo betebeharrak, edo egiaztatzen bada ez dituztela betetzen dirulaguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzak edo eskakizunak, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36. artikuluan eta dirulaguntza emateko ebazpenean ezarritakoaren arabera, hasiera emango zaio laguntza jasotzeko eskubidea galtzeko eta, hala badagokio, jasotako zenbatekoak eta dirulaguntzen arloan aplikatzekoak diren berandutze-interesak itzultzeko prozedurari, zeina bat baitator araudiarekin, hori baita Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko Legearen 36.1 artikuluko oinarrizko araudiaren arabera aplikatu beharrekoa.

17. artikulua.– Emandako laguntza aldatzeko, laguntza jasotzeko eskubidea galdu dela adierazteko eta, beharrezkoa bada, laguntza itzultzeko prozedura.

Baldin eta dirulaguntza emateko kontuan izandako baldintzaren bat aldatzen bada, eta, betiere, laguntza horrekin batera bestelako administrazioen edo ente publiko edo pribatuaren dirulaguntzak eskuratzen badira, edo, bestela, helburu bera aurrera eramateko bestelako diru-sarrera edo baliabideak lortzen badira, laguntza ematea ekarri duen erabakia aldatu ahal izango da, bat etorritz Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36.3 eta 40. artikuluetan xedatutakoarekin, bai eta 9.4.m) artikuluan eta 25. artikuluan ezarritakoarekin ere, betiere dirulaguntzaren arauak onuradun izateko ezartzen dituen gutxieneko eskakizunak betez gero.

Honako prozedura honi jarraituko zaio agindu honetan xedatutakoak betetzen ez direnean eta 15. artikulua 3. eta 4. apartatuetan adierazten diren kasuetan:

a) Prozedura abiarazi eta ebazteko ardura Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearena izango da.

b) Ikerketako zuzendariak prozedura hasi dela eta zergatik hasi den jakinaraziko dio interesdunari, eta 15 egun naturaleko epea emango dio egoki irizitako alegazioak aurkez ditzan. Prozedura hasteak eten egingo ditu oraindik egiteke dauden ordainketak, halakorik badago.

c) Alegazioak jaso ondoren edo, horretarako epean, alegaziorik egin ez bada, amaiera emango zaio prozedurari, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearen ebazpen baten bidez.

Prozedura ebazteko eta jakinarazteko epea hamabi hilabetekoa izango da gehienez, prozedura hasteko erabakia hartzen den egunetik aurrera.

Ebazpenak ez-betetzea gertatu dela onartzen badu, laguntza jasotzeko eskubidea galdu dela deklaratu du, eta, hala badagokio, adieraziko du kopuruak EAEko Diruzaintza Nagusiari itzuli behar zaizkiola, bai eta laguntza ordaindu zenetik dagozkion berandutze-interesak ere; horretarako epea bi hilabetekoa izango da gehienez, ebazpena jakinarazten denetik aurrera. Epe hori borondatezko aldiztat joko da.

d) Laguntza borondatezko epean itzultzen ez bada, horren berri emango zaio Ogasun eta Finantza Saileko Ogasun Sailburuordetzari, aplikatu beharreko legezko arauak xedatutakoari jarraikiz jardun dezan.

18. artikulua.– Datu pertsonalak.

Eskatzaileen datu pertsonalak tratatu egingo dira, eta izen honetako tratamendu-jardueran sartuko dira: ikerketa sustatzeko dirulaguntzak eta laguntzak. Informazio hau barne hartuko du:

Arduraduna: Ikerketa Zuzendaritza - Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Saila.

Helburua: ikerketa finantzatzea eta bultzatzea.

Legitimazioa:

– Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko.

– 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.

– 3/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Euskal Unibertsitate Sistemarena.

– 20/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzekoa.

Hartzaileak:

– Euskal Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.

– Ogasun eta Finantza Saila.

– Patente eta Marken Espainiako Bulegoa.

Eskubideak: eskatzaileak eskubidea du datuak irispidean izateko, datuak zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere.

2024ko urriaren 11, ostirala

Informazio gehigarria: gure webgunean kontsultatu daiteke datuak babesteari buruzko informazio gehigarri eta zehatz guztia: <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/054300-capa2-eu.shtml>

Araudia:

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES>).

3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (https://www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf).

XEDAPEN GEHIGARRIA

Agindu honetako dirulaguntzei buruzko ebazpena emateko garaian, ezinbestekoa izango da kreditu egokia eta nahikoa egotea Euskal Autonomia Erkidegoko 2025. urteko Aurrekontu Orokorretan, hala ezarrita baitago Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura emandako gastu-espedienteak aurretiaz izapidetzea arautzeari buruzko Ogasun eta Herri Administrazioi sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduaren 5.3 artikuluan.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango diote Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hileko epean, agindua aldizkari ofizial berean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urriaren 1a.

Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburua,
JUAN IGNACIO PÉREZ IGLESIAS.

2024ko urriaren 11, ostirala

I. ERANSKINA

IKERTZAILEAK PRESTATZEKO DOKTORATU AURREKO PROGRAMA APLIKATZEN DEN
ZENTROEZ BESTELAKOETAN EGONALDIAK EGITEKO LAGUNTZAK

ESKABIDE-INPRIMAKIA

Eskatzailearen eta ezarpen-zentroaren datuak			
Abizenak	_____		
Izena	_____	NAN	_____
Sexua	Gizonezkoa _____		Emakumezkoa _____
Jaioteguna	_____		
Helbidea	_____		
Herria	_____	PK _____	Probintzia _____
Herrialdea	Erroldatze-probintzia _____		
Modalitatea	_____	Urtea _____	IPB _____
Zentroa	_____		
Entitatea	_____		
Helbide elektr.	_____	1. tel. _____	2. tel. _____

Egonaldiaren eta destinoko zentroaren datuak			
Zentroa *	_____		
Departamentua	_____		
Entitatea *	_____		
Udalerrria *	_____	Herrialdea *	_____
Helbide osoa *	_____		
Ikertzaile arduraduna *	_____		
Iraupena (egunak) *	_____	Hasiera-eguna *	_____
Helburu sozioekonomikoa	_____		
Bisa izapidetzea *		BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>
Bidaia-asegurua ezkontide edo seme-alabei zabaltzea *		BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>

2024ko urriaren 11, ostirala

II. ERANSKINA

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Eskatzaileak hau ADIERAZTEN DU:

1.-ESKATU DIOLA / EZ DIOLA ESKATU (jarri dagokiona) helburu bererako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo bestelako baliabiderik beste administrazio edo ente publiko edo pribaturen bati.

BAIETZ erantzunez gero, eskabidearen kopia erantsi behar da.

2.- LORTU DUELA / EZ DUELA LORTU (erantzun dagokiona) helburu bererako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo bestelako baliabiderik beste administrazio edo ente publiko edo pribaturen batetik.

BAIETZ erantzunez gero, emate-agiriaren kopia erantsi behar da.

3.- SARTUTA DAGOELA / EZ DAGOELA SARTUTA (erantzun dagokiona) itzulketa- edo zehapen-prozedura batean.

BAIETZ erantzunez gero, prozedurari hasiera emateko agiriaren kopia erantsi behar da.

4.- BADUELA / EZ DUELA (erantzun dagokiona) ordainketarik egiteke, dirulaguntzak itzultzea dela-eta.

BAIETZ erantzunez gero, prozedurari hasiera emateko agiriaren kopia erantsi behar da.

5.- BADUELA / EZ DUELA (erantzun dagokiona) dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratibo edo penalen bat edo horretarako ezgaitzen duen legezko debekuren bat.

BAIETZ erantzunez gero, zehapenaren edo debekuaren kopia erantsi behar da.

6.- SARTUTA DAGOELA / EZ DAGOELA SARTUTA (erantzun dagokiona) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan ezarritako gainerako debekuetako batean.

BAIETZ erantzunez gero, zehapenaren edo debekuaren kopia erantsi behar da.

7.- BAIMENTZEN DUELA / EZ DUELA BAIMENTZEN (erantzun dagokiona) organo kudeatzaileak egiazta dezan uztailearen 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 18. eta 19. artikuluetan jasotako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela.

BAIETZ erantzunez gero, dagozkion egiaztagiriak erantsi beharko dira eskabidearekin batera.

8.- Onuradun izateko eskakizun guztiak betetzen dituela.

9.- Konpromisoa hartzen duela Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailaren Ikerketa Zuzendaritzari jakinarazteko dirulaguntza emateko eskatu eta kontuan hartzen den baldintzaren bati eragiten dion egoera-aldaketa oro, bai eta edozein administrazioaren edo ente publiko zein pribaturen eskutik helburu bererako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo bestelako baliabideak jaso izanaren berri emateko ere.

10.- SARTUTA DAGOELA / EZ DAGOELA SARTUTA (erantzun dagokiona) Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluan ezarritako gainerako debekuetako batean. Zehazki, egoera hauetakoren batean:

a) Dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzeko aukerarik gabe utzita epai irmo baten bidez zigortutakoak edo prebarikazioagatik, funtzionario-eroskeriagatik, ondasun publikoak bidegabe eralgitzeagatik, influentzia-trafikoagatik, iruzur egiteagatik eta legearen aurkako ordainarazpenengatik edo hirigintza-delituengatik epai irmo baten bidez zigortutakoak.

b) Hartzekodunen konkurtso boluntarioa deklaratzeko eskaria egin dutenak, edozein prozeduratan kaudimengabetzat jota daudenak, hartzekodunen konkurtsoan deklaraturik daudenak –konkurtso horretan hitzarmen bat indarrean jarri bada salbu–, epailearen esku-hartzearen mende daudenak edo uztailearen 9ko 22/2003 Konkurtso Legearen arabera desgaituta daudenak, hartzekodunen konkurtsoa sailkatzeko epaian finkatutako desgaitze-aldia oraindik amaitu gabe dagoelarik.

c) Administrazioarekin egindako edozein kontratu suntsiarazita, dena delako kausagatik errudun deklaratuak izan direnak.

2024ko urriaren 11, ostirala

- d) Pertsona fisikoak, merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen ordezkari direnak, egoera hauetakoren batean badaude: Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bateriaezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusitako bateraezintasunen araubideko egoeraren batean eta Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legean aurreikusitako egoeraren batean. Edo Hauteskunde Araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapen bidezko kargu batean daudenak, arau horretan edo gai hauek arautzen dituen arau autonomikoan ezarritakoaren arabera.
- e) Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean ez dauzkatena, erregelamenduz zehazten den moduan.
- f) Egoitza fiskala paradisu fiskaltzat hartutako herrialde edo lurralde batean dutenak.
- g) Dirulaguntzak organo emaileari berreskuratu behar izateagatik sortutako obligazioen ordainketa egunean ez dutenak, erregelamenduz zehazten diren terminoetan.
- h) Ebazpen irmo bidez dirulaguntzak eskuratzeko aukera galtzeko zehapena jaso dutenak lege honen edo hala ezartzen duten beste lege batzuen arabera. Zehazki, ezingo dira dirulaguntzen onuradun edo entitate laguntzaile izan sexuan oinarrituta diskriminatzeagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik administrazio- edo zigor-zehapenen bat ezarri zaien pertsona fisikoak eta juridikoak, dagokion zehapenean ezarritako denbora-tarte osoan. Halaber, laguntza eta dirulaguntzetatik kanpo geratuko dira estatu-araudiaren arabera berdintasun-plan bat indarrean izan behar duten arren halakorik ez duten enpresak, eta estatu-legediak emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparruan finkatzen duen moduan sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko neurriak ezarri dituztela egiaztatzen ez duten 50 langiletik gorako enpresak.
- i) Ekonomia zirkularra bultzatzeko hondakinen eta lurzoru kutsatuen apirilaren 8ko 7/2022 Legean edo Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean aurreikusitakoaren arabera, arau-hauste astun edo oso astun batengatik, eta administrazio-bideko ebazpen irmo baten bidez, zehatuta dauden pertsona fisiko edo juridikoak, publiko edo pribatuak, harik eta behar diren neurri zuzentzaileak hartu eta zehapena ordaindu arte.
- j) Desgaitasuna duten pertsonentzat lege ezarritako erreserba-kuota betetzen ez dutenak, eta hori betetzeko neurri alternatiboak abian jarri direla egiaztatu gabe.

BAIETZ erantzunez gero, zehapenaren edo debekuaren kopia erantsi behar da.

Izpta.:

Datuen babesari buruzko oinarritzko informazioa.

Eskabidean ageri diren datu pertsonalak tratatu egingo dira, eta izen honetako tratamendu-jardueran sartuko dira: Dirulaguntzak eta laguntzak.

-Arduraduna: Ikerketa Zuzendaritza - Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Saila.

-Helburua: ikerketa finantzatzea eta bultzatzea.

-Legitimazioa:

Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.

-Hartzaileak:

Patente eta Marken Espainiako Bulegoa, BOE, EHAA.

-Eskubideak: datuak eskuratu, zuzendu eta ezabatzeko eskubidea duzu, bai eta informazio gehigarrian jasotako bestelako eskubideak ere.

<https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/054300-cap2-eu.shtml>